

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Ebazpena: R 18/2013

Espedientea: 3/2011

Vitoria-Gasteizen 2013ko irailaren 27an

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordean kide hauek daude: Carlos Palao Taboada presidentea, eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese kideak eta hau erabaki dute

## AKORDIOA

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundian planteatutako gatazkaz, 1. ERAKUNDEAREN (IKZ (LETRA) ZZZZZZZZ) zerga-egoitzari buruz, Arbitraje Batzorde honetan izapidetu baita 3/2011 espediente zenbakiarekin.

### I. AURREKARIAK

1. Gatazka hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) planteatu zuen zuzendari orokorraren 2011ko martxoaren 17ko idatzi bidez; idatzia martxoaren 22an sartu zen Arbitraje Batzordean. Bertan adierazten denez, 1. ERAKUNDEA (IFZ (LETRA) ZZZZZZZZ) –aurrerantzean “erakundea”- 2002ko MARTXOAREN 6ko eskritura publiko bidez eratu zen eta eskritura hori bazkide bakarrak eman zuen, 2. ERAKUNDEAK (sozietateen taldekoak), eraketan erakundearen administratzaile bakar izendatu zen eta erakundeak, aldi berean, kargu honetan aritzeko ordezkari legez 1. IZEN-ABIZENAK jauna izendatu zuen. Erakundearen egoitza soziala eta zerga-egoitza 1. EGOITZAN finkatu zen, Toledon.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

2. Planteamenduko idatziak dio ZAEAK 1. ERAKUNDEAREN zerga-egoitza egiaztatzeko prozedura burutu zuela eta horretarako, honek aitortutako egoitzara ikustaldiak egin zituen Gaztela-Mantxako ZAEAREN Ordezkaritza Bereziak 2010eko ekainaren 21ean, 22an eta 29an eta zegozkien eginbideetan dokumentatu ziren. Era berean, idatzi horretan bertan aipatzen da Madrilgo Eskualdeko ZAEA ikuskaritzak 2010eko irailaren 28an 3. ERAKUNDEAREN bulegora (sozietateen taldekoa) ikustaldia egin zuela; bulegoa Madrilen dago, 2. EGOITZAN, eta hori ere data horretako eginbideetan dokumentatu zen. Jarduera horien ondorioz, Gaztela-Mantxako ZAEAKo Ordezkaritzak 2010eko urriaren 21ean txosten bat egin zuen eta horren arabera erakundeak bere zerga-egoitza Bizkaian izan zuen eratu zenetik, 3. EGOITZAN.

3. 2010eko abenduaren 22an ZAEAK Bizkaiko Foru Aldundiari jakinarazi zion erakundeak Toledon zuen egoitza Bizkaian izan zela 3. EGOITZARA egoitza aldatzeko proposamena, eta horrek eratu zen datara atzeraegina zuela, hau da, 2002ko martxoaren 6ra. Ekonomia Itunaren 43. Bederatzi artikuluan aurreikusitako bi hilabeteko epea igaro eta Foru Aldundiaren erantzunik jaso ezenez, ZAEAK erabaki zuen Aldundiak proposamena atzera bota zuela eta gatazka hau planteatu zuen abenduaren 28ko 1760/2007 Errege Dekretuak onartutako Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordearen araudiaren (EIABA) 13.2 artikulua arabera.

4. ZAEAREN planteamendu idatziak, aurrekariak eta bere jarrera oinarritzen den Zuzenbideko oinarriak azaldu ondoren, Arbitraje Batzorde honi eskatzen dio aitortzeko “1. ERAKUNDEAK (IFZ (LETRA) ZZZZZZZZ) eratu zenetik, hau da, 2002ko martxoaren 6tik, Bizkaian izan duela bere zerga-egoitza, 3. EGOITZAN hain zuzen ere”.

5. Arbitraje Batzordeak 2012ko urriaren 29ko saioan gatazka izapidetzeko onartu ondoren eta Bizkaiko Foru Aldundi epatu alegazioak aurkezteko, honek

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Koordinaziorako eta Laguntza Teknikorako zuzendariordearen 2013ko urtarrilaren 16ko idatzi bidez egin zuen. Idatzia 2013ko urtarrilaren 17an sartu zen Arbitraje Batzordean eta azaldutako aurrekarien eta Zuzenbideko oinarrien arabera, Arbitraje Batzordeari eskatzen dio aitortzeko "erakundearen zerga-egoitza araubide erkideko lurraldean zegoela".

6. Espedientearen berri emateko izapidean alegazioak aurkeztu zituzten; Bizkaiko Foru Aldundiak 2013ko apirilaren 8ko idatzi bidez, Arbitraje Batzordean apirilaren 9an sartua, eta ZAEAk 2013ko apirilaren 29ko idatziaren bidez, Posta Zerbitzuaren hurrengo eguneko, apirilaren 30eko, data duena.

## II. ZUZENBIDE OINARRIAK

1. Gatazka honen xedea 1. ERAKUNDEAREN zerga-egoitza zehaztea da. Gai hau Ekonomia Itunaren 43. Lau, b) artikulua ezarriaz ebatzi behar da eta horrek xedatzen duenez:

“Ekonomia itun honen eraginetarako zerga-egoitza Euskal Herrian dutela esango da:

(...)

b) Pertsona juridikoak eta Sozietateen gaineko Zergaren mendean dauden gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute sozietate-egoitza eta, betiere, sozietate-egoitza horretan baldin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza. Edo bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilia bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena non daukaten hartuko da kontuan”.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

ZAEAREN iritziz, 1. ERAKUNDEKO administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza 3. EGOITZAN (Bizkaian) egon da eratu zenetik eta horren aurka dago Bizkaiko Foru Aldundia.

2. ZAEAK gatazka planteatu zuen idatziko 6. Zuzenbide oinarrian azaldu zuen zein ekintzatan oinarritzen duen bere tesia eta honakoak dira ekintza horiek, labur esanda:

- a) Erakundeko bazkide eta administratzaile bakarra 2. ERAKUNDEA da eta horren zerga-egoitza Euskal Herrian dago.
- b) Administratzaile bakarraren ordezkaria, 1. IZEN-ABIZENAK JAUNA, Bizkaian bizi da.
- c) 1. EGOITZAN aitortutako egoitzan, Toledokoan, beste hiru erakunde daude helbideratuta, "IZENDAPEN ERKIDDEKO" titularrak, eta beste bat ere egon izan da hor bertan helbideratuta.
- d) Erakundeak ez du ekonomia-jardueren gaineko zergako inongo epigrafetan alta eman Toledon.
- e) Erakundeko ahaldunen helbideetako bi Bizkaian daude, bat Araban, bat Bartzelonan, bat Nafarroan eta bat Toledon.
- f) 2004tik 2007ra urteko kontuak 1. IZEN-ABIZENAK JAUNAK sinatu ditu eta Bizkaian du egoitza; 2008ko kontuak 2. IZEN-ABIZENAK JAUNAK sinatu ditu, eta Bartzelonan du egoitza.
- g) Erakundeak BBVAko bi konturekin egiten ditu eragiketak eta Bizkaiko sukurtsaletan irekitakoak dira biak.
- h) 2010eko ekainaren 22ko diligentzian, aitortutako zerga-egoitzara, Toledoko 1. EGOITZARA, egindako ikustaldi bat dokumentatu da eta agertutakoak adierazi zuen fakturen jatorrizkoak, BEZ liburuak eta zerga aitortpenak Bizkaian zeudela; ezin izan zituen kontabilitateko liburuak erakutsi, lokalean ez zituelako, nahiz eta ikustaldian zehar agiri batzuk bidali ziren liburuen kopiekin; era berean jakinarazi zuen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

sozietateak ez duela langilerik eta lokalean zeuden pertsonak 2. ERAKUNDEKO langileak zirela; jasotako fakturen ordainketak eta kontabilizazioa 1. UDALERRIKO (Bizkaia) zentraletik kudeatzen zirela ere adierazi zuen;

- i) 2010eko ekainaren 29ko diligentzian 3. IZEN-ABIZENAK jaunaren funtzioen zerrenda dator, bere egoitza Toledon du, eta bere adierazpenen arabera, 2. ERAKUNDEaren ordezkari zako gerentea da Gaztela-Mantxan eta 2. ERAKUNDEaren sustapen zuzendaria Espainiarako. ZAEAk dio, "horregatik dela Espainia osoan sektoreko 50 enpresa baino gehiagotako ahalduna".
- j) ZAEaren Madrilgo Ordezkaritza Bereziak SOZIETATEEN TALDEAK Madrilen dituen bulegoetara 2010eko irailaren 28an egindako ikustaldian, 4. IZEN-ABIZENAK jaunak adierazi zien (nazio mailako inbertsioen erantzuleak) "2. ERAKUNDEAREN erabakigunea eta erabakiak hartzen diren tokia Euskal Herrian dagoela, eta horregatik lurralde horretan duela zerga-egoitza".

ZAEaren iritziz, azaldutako horietatik ondorioztatzen denez Toledoko bulegotik zerbitzu teknikoa besterik ez da eskaintzen, eta ezin da identifikatu Bizkaian garatzen den kudeaketa administratiboarekin eta egiazko zuzendaritzarekin. ZAEAk Arbitraje Batzorde honek 4/2009 bezapenean adierazitako irizpidea eskatzen du, 5/2008 espedientean agindutakoa.

3. Zuzenbideko oinarri hauetan, jarraian laburtutako argudio hauek azaldu ditu planteamendu idatziak:

- A. Lehenengoaren arabera (7. Z.O.) gatazka hau eragin duten ekintzen artean, eta ZAEaren iritziz honek proposatutako helbide aldaketa justifikatzen du, eta 4. ERAKUNDEA sozietatean gertatu zirenen artean

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

analogia dago (idatziak OKERREKO IZENDAPENA dio akats baten ondorioz), beraz, ZAEAREN esanetan “bereziki argigarria da 2010/06/22an BFAK egindako berariazko adostasuna, ZAEAREN Galiziako lurralde ordezkariak proposatutako zerga-egoitza aldatzearekin”.

B. Bere idatziaren 8. Zuzenbide oinarrian ZAEAK SOZIETATE TALDEAREN “modus operandia” aipatzen du eta zenbait ekintza aipatzen ditu “bazkide bakarraren ordezkariak eta administratzaileak (denak Bizkaian egoitza dutenak) Bizkaitik hartutako zenbait erabaki globaletan oinarritzen baitira eta horiek dira Taldearen egiazko kudeaketa egiten dutenak”. Idatziaren hasieran 22 sozietate anonimoren zerrenda dago, IZENDAPEN ERKIDE izendapen erkidearekin, bakoitza bere toponimoarekin, eta horiei buruz esaten denez 2009 eta 2010 artean lurralde erkidetik foru lurraldera tokialdatu ziren. ZAEAK hau dio:

“Sozietate hauetan ikusten denez, sortzeari, egoitzari, ordezkariari, dibidendu pasiboak ordaintzeari... buruzko erabakiak ez dira sozietate bakoitzean banaka hartzen euren egoera juridikoa (fiskala eta merkantila) errealitatera egokitzeko, euren gizarte xedearen garapen desberdinak zehaztutako errealitatera egokitzeko (eta horrek berekin ditu finantzazio, inbertsio, ordezkariak... behar desberdinak), baizik eta Bizkaitik hartzen diren erabaki globalak dira, bazkide bakarraren eta administratzailearen ordezkariak hartzen dituzte sozietate guztientzako antzeko moduan.

Kasu hauetako batean ere ez da kudeaketa administratiboaren kokapena zehazteko gorabeheran behar adinako aldaketarik egon sozietate horien egoitza aldaketa justifikatzeko, eta pentsaezina da

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

horien egiazko helbidea aldatu denik, beraz, horrek indartu egiten du erabaki erkideak Bizkaitik hartu diren ideia, bereziki zerga-egoitza Bizkaira aldatzea zenbait sozietatek, euren egiazko egoera eta behar zehatzak dena delakoak izan arren. [...]

Horrek adierazten duenez, zerga-egoitza Bizkaira aldatzeak egiazko aldaketa islatu ordez, sozietateen egoera juridikoa eratu zirenetik zegoen errealitatera egokitu ditu”.

ZAEAREN idatziak hainbat ekintza aipatzen ditu, sozietateak eratu, egoitzak tokiz aldatu, ahalak eman eta dibidendu pasiboak ordaindu, guztiek ere eragina dute IZENDAPEN ERKIDEN sozietate multzoetan, hau da, parke eolikoaren ustiatzaileetan.

C. Gatazka planteatzeko idatziko 9. Zuzenbide oinarrian Arbitraje Batzorde honen ebazpenek eraturako aurrekaria aipatzen du ZAEAK; 2008ko azaroaren 24ko 1/2008, 1/2008 espedientean agindua eta 2009ko urtarrilaren 28ko 1/2009, 2/2008 espedientean agindua. Ebazpen horietan Arbitraje Batzordeak uste izan zuen IZENDAPEN ERKIDEN erakundearen administrazio kudeaketa eta negozioen zuzendaritza Bizkaiko Lurralde Historikoan egiten zela eta, ondorioz, bere egoitza Lurralde horretan zegoela aitortu zuen.

Bizkaiko Foru Aldundiak bi ebazpen horien aurkako errekurtsioa ezarri zuen eta atzera bota zituzten Auzitegi Goreneko hirugarren aretoko 2010eko otsailaren 4ko eta ekainaren 16ko epaiek, 86/2009 eta 155/2009 errekurtsioetan, hurrenez hurren.

4. Bizkaiko Foru Aldundiak bere tesia babesteko 2013ko urtarrilaren 16ko alegazioen idatzian erabilitako argudioak hauek dira labur-labur:

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

a) Azterketaren xede diren urteetan, erakundea parke autogeneradore bat sustatzeko fasean zegoen eta "nahiz Arbitraje Batzordeak nahiz Auzitegi Gorenak ebazpen eta epaietan zer irizpide erabiltzen duten jakina den arren, negozioen kudeaketa administratiboari eta zuzendaritzari dagokionez, azpimarratu beharra dago erakundeak garatzen duen jarduerak berak berezitasun bat duela, parkea sustatu eta eraikitzerakoan...".

Bizkaiko Foru Aldundiak alegatzen duenez "administrazio kudeaketak eta negozioen zuzendaritzak, soilik kontabilitate ikuspegitik ikusitakoak, pisu espezifiko oso txikia du termino konparatiboetan osagai administratibo erabat teknikoarekin (inbertsioa egiteko erabakia, zein lurraldetan egiten den, 'erosteko' lur-sailak, lizentziak, baimenak, eraikuntza, etab.) eta parkea eraikitze eta sustatzeko aldi egin behar da, beraz, oso garrantzitsua da parke eoliko bat eraikitze zer fase dauden ezagutzea, zeregin administratibo eta zuzendaritzako horien berariazko pisua zein den ebaluatu ahal izateko". Jarraian, aipaturiko faseak azaltzen ditu idatziak:

- Sustapena: "aldi honetan kokapenak hautatzen dira, haizea aztertzen da, lizentziak eskatzen dira, burutzapen proiektua egiten da, bideragarritasun plana, etab. Fase honetan administrazio kudeaketa eta negozioaren zuzendaritza gerenteak egiten ditu, batez ere, 3. IZEN-ABIZENAK JAUNAK, eta honen laneko gunea erakundearen egoitza sozialean dago, Toledon, 1. EGOITZAN, fase honetako kudeaketa eta burutzeko behar diren jardueren zuzendaritza aipaturiko 3. IZEN-ABIZENAK JAUNAK egin ditu, Gaztela-Mantxako 2. ERAKUNDEKO gainerako taldearekin batera".



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

- Eraikuntza.
- Lanak eta mantentze-lanak.

Bizkaiko Foru Aldundiak alegatzen duenez “parkea sustatu eta eraikitzeko faseetako kudeaketa eta zuzendaritza lanak Toledoko 2. ERAKUNDEKO langileek egiten dituztenez, lan horiei begiratu behar zaie zerga-egoitzaren tokia zehazteko, erakundeak egindako jarduera bakarra baita, eta horrek esan nahi du erakundearen zerga-egoitza erregimen erkideko lurraldean dagoela, eraikuntza eta sustapen fase horretako erakundearen administrazio lan guztiak 2. ERAKUNDEKO langileek egin baitzituzten Toledon”.

- b) Alegazioen idatziko 5. Zuzenbide oinarriari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak erakundeen negozioetako kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza zentralizatuta dagoen tokia zehazteko irizpideak aipatzean urriaren 15eko 2631/1982 Errege Dekretuak onartutako Sozietateen gaineko Zergaren Erregelamenduko 22. artikuluan ezarritakoak aipatzen ditu, Auzitegi Gorenak besteak beste 2010eko ekainaren 16ko epaian esanahia zuten irizpidetzat hartu baitzituen, prezeptu hori indarrean ez dagoen arren. Administrazioaileen edo erakundeko behar adinako gerente kopuruaren zerga-egoitzari buruzko irizpideari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiak dio SOZIETATE TALDEKO langileek direnez kasu honetan, euren zerga-egoitzaz gain atxikitako laneko zentroaren tokia ere kontuan izan behar dela. Kasu honetan, erakundearen administrazioaile bakarra 2. ERAKUNDEA da eta honen zerga-egoitza Arabako Lurralde Historikoan zegoen 2010 erdian Bizkaira aldatu zen arte.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

c) Ezin da 2. ERAKUNDEAREN zerga-egoitza erabili, batetik, erakundeari zerbitzuak eskaintzen dizkion SOZietateen Taldeko langileak erabili behar baitira eta zer lurraldetan aritzen diren ere bai, eta bestetik, erakundeak 2. ERAKUNDEko zerbitzuak jasotzeaz gain, SOZietateen Taldeko beste erakundeenak ere jasotzen ditu.

Azkeneko honi buruz hau dio Bizkaiko Foru Aldundiak:

- SOZietateen Taldean dago parkeak sustatu eta saltzeko sailaren batzorde betearazlea; hau hileru biltzen da eta, batez ere, Madrilen biltzen da. Batzorde honetan hartzen dira erakundearen estrategiei, teknikei, ekonomiko-finantzarioei, juridikoei, inbertsiokoei... buruzko erabakiak.
- Parke eolikoak sustatu, eraiki eta ustiatzeko erakundeek jasotzen dituzten kontabilitate zerbitzuetan hainbat langilek hartzen dute parte, ez soilik 3. ERAKUNDEKOEK/2. ERAKUNDEKOEK, baizik eta Taldeko beste erakundeetakoek, eta horien laneko zentroak lurralde desberdinetan daude: Madril, Bizkaia eta Nafarroan. Saileko arduraduna eta erakundeko eragiketa guztiei oniritzia emateko arduraduna, 4. IZEN-ABIZENAK jauna da, eta honen laneko gunea Madrilen dago.
- BEZeko liburuei buruzko ardura zerga sailak du eta sail hau Nafarroan dago. Sail honek bere kargu ditu zerga arloko jarduera guztiak, hala nola, erreklamazioak edo errekurtsioak.

d) SOZietateen Taldeko sailak toki hauetan daude:

- Finantzarioa: zatirik handiena Madrilen.
- Juridikoa: Madrilen.
- Diruzaintza: 2010az geroztik Madrilen.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

- Zerga-alorra: Iruñean.
- Zuzendaritza Nagusia: Madril eta Bilbo artean.

Bizkaiko Foru Aldundiak dio SOZIETATEEN TALDEAK Madrilen, 5. IZEN-ABIZENAK [sic] koordinatutako unitate bat zuela 2012ko abendura arte, eta parkearen sozietate titularrak artatzen zituela. Urte horretatik aurrera, Iruñean laneko gunea duen beste pertsona batek hartu zituen funtzio horiek.

- e) Erakundearen zerga-egoitza Toledon ez egoteak ez du esan nahi Euskal Herrian dagoenik, administrazio kudeaketa eta zuzendaritza lurralde erkidean egiten baita batez ere.

5. Bizkaiko Foru Aldundiaren alegazioen idatzia amaitzeko, jarraian laburtu diren ondorio hauek daude:

- 1.- Esanguratsua da erakundeek ustiaketa hasi zuten unetik garrantzia hartzea erakundearen zerga-egoitzari buruzko desadostasunek. Ordura arte kudeatzeko, likidatzeko eta BEZa egiaztatze eskumendun administrazioa bere zerga-egoitzari zegokiona zen. Parkea sustapen eta eraikuntza fasean dago eta horrek esan nahi du erakundea bere zerga-egoitzako administrazioak itzuli beharreko BEZa eskatzeko moduan dagoela, BEZ kuota garrantzitsuak jasan baititu. Ustiaketa hasten den unetik jasandako BEZ kuotak oso txikiak dira, baina parkeek jasanarazitako BEZ garrantzitsua dute. Idatzia honela amaitzen da

“parke eoliko ia guztien instalazioak lurralde erkidean daudenez eta ia guztiek 6/7 milioi euro baino gehiagoko eragiketa bolumena izan ohi dutenez, eta euren instalazioak edota zerga-egoitza dituzten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

lurraldean egiten dituztenez euren eragiketak, lurralde-erkidera tokialdatu da eta zerga kontzeptu hori ordainarazteko eskumendun administrazioa azkeneko lurralde honetakoa da.

Beraz, ZAEAREN asmoen arabera, parkea ustiatzen hasi arte hori eraikitzen eta ustiatzen [sic] jasandako kuota guztiak BFOk itzuliko litzuzke eta ustiaketa hasten den unetik BEZ guztia lurralde erkidean sortu eta sartuko litzateke.”

2.- “Erakundeak egindako jarduera izan behar litzateke kontuan eta bereziki hau:

1. Estrategia, finantzazioa, inbertsioak eta abarri buruzko erabakiak parkearen sustapen eta salmenta saileko batzorde betearazleak hartzen ditu eta honek [...] bilerarik gehienak lurralde erkidean egiten ditu, Madrilen.

2. Proiektuaren eguneroko zuzendaritza 2. ERAKUNDEAK Toledon duen talde teknikoak egiten du, horrek hartzen ditu beharrezko administrazio izapideei buruzko erabakiak (lizentziak, tasak, etab.), kontratazioak egiten ditu, fakturak onartzeko eguneroko kudeaketako gaiak, etab.”

3.- Gatazka honetako gertakariak ezin dira 1/2008 gatazkakoarekin alderatu, 5. ERAKUNDEAREN zerga-egoitzari buruzkoekin, Arbitraje Batzorde honen azaroaren 24ko 1/2008 ebazpenaren xedearekin. Erakunde hori parke eolikoa ustiatzeko fasean zegoen, aldiz, 1. ERAKUNDEAK berea sustatu besterik ez zuen egin.

4.- “Arbitraje batzordearen eta Auzitegi gorenaren irizpidea ezagutu arren,  
1. ERAKUNDEA bezalako enpresa batean [2. ERAKUNDEKOAK]

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

bezalako ordezkariak zehatz batek egindako lanei buruz, ezin dira Ordezkaritzak egindako lanak mesprezatu, gai teknikoei buruzkoak direlako”. Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera baieztapen honek “ondorioztatuko luke ekoizpena egingo den lantegia eraikitzen ari diren teknikariak beste langilerik ez duen lantegi batek, eta ondorioz hirugarrenekin ekoizpen jarduera hasi ez duen batek, ez duela zerga-egoitzarik bere lantegia dagoen tokian, izan ere, lantegi hori bere nagusiaren zerga-egoitzan egongo litzateke [...], era berean, ordezkariak egindako kontrol jarduera mesprezatuaz, kostuen kontabilitatea ez dela administrazio kudeaketa kontzeptukoan sartzen uste izango litzateke”.

5.- Zuzendaritza eta kudeaketa lanak lurralde erkidean egiten dira batez ere. Ondorio hauetarako kontuan izan behar da sail desberdinak non dauden, parkeen sustapen eta salmenta sailaren batzorde betearazleak egindako lanak non dauden eta 3. IZEN-ABIZENAK jaunak betetako funtzioak non dauden.

6.- Zerga-egoitza Toledon ez egoteak ez du esan nahi lurralde erkidean ez dagoenik, Madrilgo 2. EGOITZAn egiten diren jarduerak kontuan izanez gero.

6. Alegazioen bigarren idatzian, 2013ko apirilaren 8koan, espedientea agerian jarri ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiak bere aurreko alegazio guztiak berretsi besterik ez ditu egiten.

7. Espedientearen berri emateko izapidean ZAEAk alegazio berriak formulatu zituen 2013ko apirilaren 29ko idatzi bidez, eta gatazka planteatzeko idatzian aipatutako aurrekari guztiak eta zuzenbideko oinarri guztiak berretsi zituen eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Bizkaiko Foru Aldundiko alegazioei erantzun zien jarraian laburbildu diren arrazonamendu hauen bidez:

- 1.- Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz BEZa ordainarazteari buruzko ondorioei dagokienez, zerga-egoitzak ez du zerikusirik zerga bat ordainarazteko dauden ondorioekin: “zerga-egoitza dena da eta dagokion lurraldean kokatzen da, erakundearen kudeaketa eta egiazko zuzendaritza egiten den tokiaren arabera”.
- 2.- Zergadunak bere zerga-egoitza aitortua lurralde erkidean eduki duen urteetan, bere jarduera parte eolikoa sustatu eta eraikitza mugatu denetan eta eguneroko kudeaketa administratiboko lanak 2. ERAKUNDEAK Toledon duen talde teknikoaren bidez egin direnetan, erabaki estrategikoak SOZIJETATEEN TALDEKO parkeak sustatu eta saltzeko saileko batzorde betearazleak hartu dituen bitartean, ZAEAK dio "administrazio doktrinak eta arbitraje batzordeak euren ebazpenetan ezarri dutenez, zerga-egoitza bakarra egon daiteke, eta zuzendaritza edo kudeaketa administratibo edo tekniko jarduera batzuk lurralde batean garatzen direla aitortu arren, beste lurralde batean jarri daitekeela zerga-egoitza, han daudelako 'negozioen egiazko zuzendaritza eta kudeaketa administratiboa' definitzen duten 'elementurik gehienak'".

ZAEAREN iritziz, 1. ERAKUNDEAK lurralde erkidean garatutako jarduerak, batetik, teknikoak dira (soilik betearazleak) baina zuzendaritzako jardueretatik argi eta garbi bereiz daitezkeenak eta, bestetik, kudeaketa eta administrazio lanak oso gutxi dira, posta, jakinarazpenak eta fakturak zentralizatzeko helbide bat jartzea besterik ez, gero 1. UDALERRIRA igortzen baitira eta han egiten da erakundearen egiazko administrazio kudeaketa. Toki honetan du 2.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

ERAKUNDEAK bere zerga-egoitza, erakundearen administratzaile bakarra da hau eta SOZIETATEEN TALDEKO egituraren barruan parke eolikoak sustatzen dituzten sozietateetako administrazio eta kudeaketa zerbitzuaz arduratzen da, euren kabuz horrelakoak egiteko adina bitarteko material eta giza bitarteko ez dituzten kasuetan.

3.- Arbitraje batzordearen R1/2008 eta R1/2009 ebazpenak eta 2010eko otsailaren 4ko eta ekainaren 16ko Auzitegi Gorenaren epaien aplikagarritasuna dela eta, Bizkaiko Foru Aldundiak aplikagarritasun hori zalantzan jarri arren, ZAEAk hau dio:

- a) 1/2008 eta 2/2008 gatazkan ZAEAk planteatu zituen parke eolikoaren zenbait sozietateren aitortutako zerga-egoitza zela eta.
- b) Sozietate horiek pertsona bakarreko sozietate anonimo legez eratu ziren, bazkide eta administratzaile bakarra 2. ERAKUNDEA da, SOZIETATEEN TALDEKO sozietate holdinga.
- c) Parkeak proiektatzen ari zen lurraldean aitortu zuen sozietate bakoitzak bere zerga-egoitza, nahiz eta egoitza horrek ez bete zerga-egoitza izateko behar zen baldintzetako bat bera ere, eta ondorioz, ZAEAk gatazkak planteatu zituen Arbitraje Batzordean, sozietateen zerga-egoitza eratu zirenetik 1. UDALERRIAN egon behar zela uste baitzuen, toki hau baitzen sozietate desberdinen kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza zegoen tokia.
- d) Sozietateek, SOZIETATEEN TALDEKO sozietate berezituekin sinatzen zituzten alokairu kontratuak (zerbitzuenak, instalazioen eraikuntzenak, aerogeneradoreak abian jartzekoak...) eta ez zuten

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

ez beraien langilerik ez lokalik, beraz, ez zuten euren kabuz inolako kudeaketa gaitasunik.

- e) Erakundeen zerga-egoitzak aitortu ziren lurraldeetan 2. ERAKUNDEKO langileek egiten zituzten zereginak hauek ziren: batetik, fakturak, posta eta jakinarazpenak jaso, ondoren 1. UDALERRIRA igortzeko, eta, bestetik, zuzendaritzak hartutako erabakiak alorrean burutu, izaera teknikoko zereginak "kudeaketa administratiboaren zentralizazio irizpidea integratzeko balio ez dutenak eta are gutxiago negozioaren zuzendaritza irizpidea integratzeko".

ZAEAk dio amaitzeko

“argi eta garbi ikusten da zein koherentea den –logikoa, bestalde-  
SOZietateen TALDEAK gatazka honen xede den sozietatea kudeatzeko eta zuzentzeko duen modua eta aurreko ataletan azaldutakoa, urteen poderioz taldeak lortu duen profesionalizazio eta espezializazio handiagoa alde batera utzita, taldearen berrantolaketa desberdinetan ikusten denez, dela juridikoetan –2. ERAKUNDEAK 3. ERAKUNDEA xurgatu, holdingaren buru den egoitza soziala Arabatik Bizkaira aldatu 2010ean– dela eremuen kudeaketa –zentralizatu sail espezializatueta egitean, zerga arlokoa Nafarroan, diruzaintza Madrilen, kontabilitatea 1. UDALERRIAN– edo erabat administratiboak –kontabilitate sistema integrala ezarri SOZietate TALDEAN–.

Hori guztia gogoan izanda, ondorioztatu daitekeen bakarra da parke eolikoaren sozietate titularren zerga-egoitza zehazteko kontuan izandako irizpideak eta Arbitraje Batzorde honek 1/2008 eta 1/2009 Ebazpenetan lortutako ondorioak, gero Auzitegi Gorenak berretsiak, erabat



<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

aplikagarriak direla gatazka honetan, eta horrek ez duela esan nahi ondorio haiek mekanikoki ezarri zaizkionik zergadunari...”.

4.- Bizkaiko Foru Aldundiaren beste alegazio batean esaten da erakundearen zerga-egoitza Toledon dagoela aintzat hartzen ez bada, han egiten direlako parkearen zeregin teknikoak, egoitza hori lurralde erkidean kokatu beharko dela, hor egiten baitira gainerako kudeaketa eta zuzendaritza lanak eta “itxiera klausula gisa” Madrilen, 2. EGOITZAN, hor egiten baitira jarduera horietako gehienak. ZAEAk dio Bizkaiko Foru Aldundiak dioela sailak edo zuzendaritza zentroak oso barreiatuta daudela: finantzarioa eta juridikoa Madrilen; diruzaintza 1. UDALERRIAN eta Madrilen 2010az gerostik; fiskala, Iruñean; zuzendaritza orokorra 1. UDALERRIAN eta Madrilen. ZAEAk gehitu duenez, Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera erabaki estrategikoak SOZIETATEEN TALDEKO parkeen sustapen eta salmenta saileko batzorde betearazlean hartzen dira, eta hori hilerio Madrilen biltzen da eta zenbaitetan 1. UDALERRIAN edo Gasteizen, eta kiderik gehienak Bizkaian eta Madrilen ari dira lanean.

ZAEAk dio 2. ERAKUNDEAK, erakundearen bazkide eta administratzaile bakarrak,

“duen enpresa eta erakunde mailako egituraren ezaugarria denbora eta geografia arloko barreiadura dela, bertako sail desberdinen funtzionalitatea dela eta. Horiek guztiek izaera instrumentala eta betearazlea dute 2. ERAKUNDEAK parke eolikoekin hartzen dituen erabakiekiko. Erabaki horiek garrantzi hauek dituzte: inbertsioak burutu, juridikoa, finantzarioa, diruzaintzakoa, kontabilitatea eta zerga alorrekoa. Organo hauek, eremu funtzionalekiko egitura bat oinarri

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

dutela, bigarren maila batean aritzen dira eta lehen mailako (2. ERAKUNDEA) erabakiak eta estrategiak burutzen dituzte”.

ZAEAk hau gehitu du:

“Aipatutako Batzordeari dagokionez, esan beharra dago erakunde bat gehiago denez, taldeko enpresa egiturako kidea, bere izenak, 'betearazlea', adierazten duela bere funtzioa: 2. ERAKUNDEAK hartutako erabakiak betetzen ditu eta, dena dela, ZAEako datu-baseko informazioaren arabera, gutxienez zortzi kidek Bizkaian dute euren zerga-egoitza.

Zergaduna SOZIETATEEN TALDEKOA da eta hau da, bertako sailen bidez, kudeaketa administratiboa eta gatazkaren xede den erakundeko negozioen zuzendaritza egiten duena.

[...]

Egia den arren, zergapekoaren kudeaketa administratiboa 2. ERAKUNDEKO sail desberdinen artean banatuta dagoela funtzioei eta lurraldeari dagokionez, ez dago zalantzarik negozioen egiazko zuzendaritza bere bazkide eta administratzaile bakarrak egiten duela, gatazka planteatu duen idatzian eta alegazioen idatzi honetan egiaztatu legez.”

Baieztapen hau indartzeko, ZAEAk euskal prentsan eta Nafarroakoan argitaratutako informazioa dakar; 6. ERAKUNDEAREN (sozietateen taldeko burua) egoitza soziala eta fiskala Arabatik Bizkaira tokialdatu zirenean argitaratu zen informazio hori eta horren arabera, sozietateak aldaketa hau justifikatu egiten du 1. UDALERRIAN dagoelako “zuzendaritza, kontabilitate eta

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

administrazio arloko egitura osoa, eta beraz, ‘gizarte-egoitzak enpresaren egiazko jardueraren ildotik jarraitu behar du’ eta adierazten du “erabaki logikoa dela, erakundeak hor baititu bere jarduera eta erabaki organoak”.

ZAEAk Arabako Batzar Nagusien Bilkura Egunkariko orri batzuk aurkeztu ditu, 2010eko ekainaren 7ko 86. zenbakidun osoko bilkurakoak dira orriok eta bertan interpelazio bat jasotzen da “Ahaldun Nagusiari zuzendutakoa, 6. ERAKUNDEA enpresaren gizarte-egoitza tokiz aldatu izanak foru ogasunean eta arabar industrian izango duen eragina ezagutzeko”. ZAEAREN idatziak ahaldun nagusiaren erantzunaren pasarte batzuk aipatzen ditu, eta honek dio, besteak beste, 6. ERAKUNDEAREN erabakia

“lehenago edo geroago gertatuko zela argi zegoela 2006an 7. ERAKUNDEARI atal aeronautikoa saldu ondoren, 2. UDALERRIKO TOKIAN baitago. 6. ERAKUNDEAK bere gizarte-egoitza Gasteizen mantendu zuen, baina bi langile besterik ez zituen, bi administratzaile zehatz esateko, zuzendari guztiak eta gainerako langileak 1. UDALERRIKO negozio gunean baitzeuden. [...] Urte hauetan bere gizarte-egoitza eta, beraz, zerga-egoitza Araban zituenez, arabar ogasunean ordaindu ditu zergak. Egoera honetaz mesedetu egin gara, nolabait esan, baina argi zegoen kontraesana zegoela, logikak berak esaten baitu eta epaitegietako epaiek ere bai, enpresa baten egoitza bere erabaki gunea dagoen tokian egon behar dela eta hau 1. UDALERRIAN zegoen”.

5.- Parkeak sustatu eta saltzeko sailaren batzorde betearazleak betearazten ditu erabaki estrategiko handiak, baina ez du kudeaketa administratiboa eta erakundeko negozioen zuzendaritza egiten. Zeregin hau 1. IZEN-ABIZENAK jaunari dagokio, administratzaile bakarraren ordezkaria delako eta bere langunea Bizkaian dago. ZAEAk dioenez,

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

berak hartzen du parte sozietatearen bizitzako ekintzarik garrantzitsuenetan hau ordezkatuaz eta berak kontrolatzen eta aztertzen ditu 2. ERAKUNDEKO ordezkartzaren gerenteak Gaztela-Mantxan garatzen dituen zereginak.

8. 1/2008 eta 1/2009 ebazpenetan, Auzitegi gorenak berretsiak 2010eko otsailaren 4ko eta ekainaren 16ko epaietan 86/2009 eta 155/2009 errekurtsio zk.), hurrenez hurren, Arbitraje Batzorde honek onartu zuen gatazka horien xede ziren sozietateen zerga-egoitza ez zegoela eurek aitortutako gizarte eta zerga-egoitzan, euren titularpeko parke eolikoa zegoen lurraldean baitzegoen, eta egoitza horretan jarduera teknikoak, proiektuak eta parkea eraikitze lanak besterik ez baitziren egiten. Aldiz, zantzu guztien arabera, enpresako kudeaketa administratiboko eta zuzendaritzako jarduera guztiak Bizkaian zeuden SOZIETATEEN TALDEKO sozietateek egiten zituztela ikusten zen, zehatz esateko, 1. UDALERRIKO TOKIAN.

Bizkaiko Foru Aldundiak dio aurreko irizpidearen arabera “ekoizpena egingo den lantegia eraikitzen ari diren teknikariak beste langilerik ez duen lantegi batek, eta ondorioz hirugarrenekin ekoizpen jarduera hasi ez duen batek, ez duela zerga-egoitzarik bere lantegia dagoen tokian, izan ere, lantegi hori bere nagusiaren zerga-egoitzan egongo litzateke” (letra etzanak jarrita). Eta hala da, Arbitraje Batzorde honen ebazpenean aipaturiko ekintzekin bat dator azaldutako egoera, eta Bizkaiko Foru Aldundiak burugabetzat jotzen duen ondorioa da, hain zuzen ere, ebazpen horietan aipatzen duguna. Argi dago horrelako egoera talde bateko sozietatean baino ezin dela gertatu, zeinetan bertako sozietate bat instalazioa eraikitzen beste ezertan ez den aritzen (eta ondorioz, langile teknikoak baino ez ditu izango), aldiz, enpresako zuzendaritza lanak eta kudeaketa administratiboa taldeko beste sozietate batek egingo ditu. Baina ezin da horrelakorik irudikatu erakundea independentea denean, besteekin inolako loturarik ez duenean, eta bere kabuz egin behar dituenean

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

dela bere xede diren zeregin teknikoak dela enpresako zuzendaritza eta kudeaketari dagozkionak, eta, ondorioz, horretarako bitartekoak izan.

Bi kasuetan (talde bateko sozietatea eta sozietate independentea), erakundearen zerga-egoitza bere negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza egiten diren tokian egongo da. Honi dagokionez, gure 1/2008 ebazpenean, 6. zuzenbide oinarrian, genion

“ erakunde interesatua sozietate talde batekoa izateak ez du aldaketa handirik bere zerga-egoitza zehazteko irizpideak ezartzerakoan. Taldeko sozietateek euren banakotasun juridikoa mantentzen dute; ondorioz, zerga-egoitza zehazteko irizpideak taldeko kide bakoitzari banatuta ezarri behar zaizkio. Hau da, taldea egoteak ez du esan nahi talde horretako sozietate baten egoitza zehazteko ondorioetarako garrantzirik ez duenik kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza sozietateek berak edo taldeko beste erakunde batek egiteak, jarduera horiek taldeko beste sozietate batek egiten baditu, haren zerga-egoitzan gertatuko da hori, Ekonomia Ituneko aipaturiko prezeptua ezarria [43.Lau artikulua].

Bizkaiko Foru Aldundiak dio aipaturiko ebazpen horien ondorioak ezin direla mekanikoki beste kasu batzuetan ezarri, eskuartean dugunean esaterako, aurrekoetatik bereizteko modukoak baitira. Honi buruz dio “alde nabarmenak” daudela gatazka honetako 1. ERAKUNDEAREN eta 1/2008 ebazpenak erabakitako 5. ERAKUNDEAREN artean; hau da, lehenengoak parke eoliko bat sustatu du, ez da oraindik eraikitze eta ustiatze faseetan sartu, eta bigarrena, aldiz, azkeneko fase horretan zegoen. Baina alde honek ez du garrantzirik erakunde baten eta bestearen kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza non egiten ziren zehazteko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Aldiz, gatazka honetako aldeek aipatutako gorabehera guztien osoko balorazioan ondorioztatu dezakegunez, orain aztertzen ari garen kasua eta Arbitraje Batzorde honen 1/2008 eta 1/2009 ebazpenen xede zirenak funtsean berdinak dira eta SOZIETATEEN TALDEAK horietan guztietan antolakuntza egitura berdina erabili du parkeak “sustatu eta saltzeko” eta oinarrizko lerro hauek ditu: a) parkea dagoen lurraldean zerga-egoitza duen Taldearen holdingak parte hartze osoa duen sozietate bat eratu; b) Sozietate honek (“X IZENDAPEN KOMUNA, SA”) parkea eraikitze prestakuntza lanak egin eta eraiki eta instalazioa egin, horretarako Taldeko enpresa teknologikoekin beharrezko kontratuak eginda; c) Parkearen sozietate jabeari eskualdatu, bere kapitaleko akzioak salduta.

Eskema hori behin eta berriro erabili izanak adierazten duenez, “parke eolikoko sozietateen” sozietate-eragiketak ez dira banakoak, baizik eta sozietate horientzat guztientzat taldean egiten dira. Akzioak saldu arte, “parke eolikoko sozietateak” egitura tekniko hutsak dira (eraikitzen ari diren instalazio industrialak), ez dute banako enpresa kudeaketarik, taldean egiten baitute mota honetako sozietate guztientzat SOZIETATEEN TALDEKO organo nagusiek; beraz, horretarako behar diren bitartek pertsonal eta materialak dauden tokian egiten da. Aurrekari horietatik guztietatik ondorioztatzen denez, toki hau batez ere 1. UDALERRIKO (Bizkaia) TOKIA da.

9. Aurreko ondorio hori ez du kontraesaten SOZIETATEEN TALDEKO organo nagusi batzuk Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo egoteak, hori azpimarratzen duen arren Bizkaiko Foru Aldundiak eta ZAEAk ukatu. Zentzu honetan, Bizkaiko Foru Aldundiak parkeak sustatu eta saltzeko sailaren batzorde betearazlearen funtzioak nabarmentzen ditu eta organo horrek bilerak Madrilen egitea ere bai. Bizkaiko Foru Aldundiak dio parkeei buruzko gaien erabaki estrategikoak ikuspegi guztietatik hartzen dituela Batzordeak, teknikitik, ekonomiko-finantzariotik, juridikotik, etab.; aldiz, ZAEAk 2. ERAKUNDEAREN erabakiak

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

betearazi besterik ez duela egiten esaten du. Horri buruz esan beharra dago, SOZietateen TALDEKO antolakuntza egitura ez dela aztertu gatazka honetan eta, beraz, Arbitraje Batzordeak ez daki zehatz-mehatz zer funtzio eta posizio dituen Batzorde horrek; hau da, organo honek hartzen ote dituen parke eolikoen inguruko erabakirik handienak edo, aldiz, organo erabat teknikoa den, Taldeko goi-organoen mendekoa.

Batzorde horren edo Bizkaiko Lurralde Historikotik kanpo dauden beste organoen zeregina dena delakoa izan arren, espedientetik ondorioztatzen denez, diruzaintzaren edo zerga gaien arduradunak direnez, ez da erabakigarria “parke eolikoko sozietateen” kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza SOZietateen TALDEKO organo nagusiek egiten dutela batez ere salbuesteko, horiek hartzen dituzten arren enpresako erabakirik nagusienak. Zentzu honetan, 2011ko maiatzaren 2ko R 11/2011 gure ebazpenean, 29/2008, 30/2008, 32/2008, 38/2008, 39/2008 eta 40/2008 pilatutako espedienteak, 13. zuzenbide oinarria, ukatu egiten dugu administrazio organoaren bilerak eta bazkideen Batzar Nagusiak egiten diren tokiaren garrantzia. Eta hau oinarrizko, Auzitegi Nazionalako Administrazioarekiko Auzietarako Salaren ekainaren 20ko 7958/2005 zenbakidun epaia, 426/2002 errekurtsua aipatu nahi dugu; horrek, Autonomia-erkidegoei lagatako estatuko zergen alorreko gatazkek ebazteko arbitraje batzordearen 2002ko apirilaren 4ko akordioaren aurkako errekurtsua atzera bota zuen, ebatzi zuenez, ez da eraginkorra 8. ERAKUNDEA sozietatea Madrildik Bartzelonara lekualdatu izana, nahiz eta erakundeko lehen exekutiboak eta aholkulari batek Bartzelonan izan egoitza eta jarduera hiri horretan garatu. 1115/2006 zenbakidun kasazio errekurtsua jarri zen epai horren aurka, baina Auzitegi Gorenaren administrazioarekiko auzietako salak atzera bota zuen 2011ko apirilaren 13ko epaian.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Ukitutako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
3/2011	R18/2013	2013/09/27	Bizkaiko Foru Aldundia	Estatuko Administrazioa	Pertsona juridikoen zerga-egoitza

Era berean, 2012ko uztailaren 26ko R 10/2012 gure ebazpenean, 7/2010 espedientea, 7. zuzenbide oinarria, esaten dugu kudeaketa eta zuzendaritzako gainerako jarduerak egiten diren tokian kontabilitatea ez eramateak ez duela berez erakundeetako negozioen kudeaketa administratiboaren eta zuzendaritzaren kokapena zehazten, eta garrantzitsua iruditzen zaigu erakunde horiek enpresa edo sozietate talde batekoak izatea. Orduan ere esan genuen (ibidem) negozioen kudeaketa administratiboa eta zuzendaritza ezin direla banatu eta bata eta bestearen artean gorabeherak egonez gero, bigarrenak lehentasuna zuela, enpresako oinarrizko erabakiak hartzen diren tokia delako.

Aurreko gogoeta horien ondorioz esan dezakegu 1. ERAKUNDEAREN kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza 2. ERAKUNDEAK bere jarduerak egiten zituen tokitik egiten zirela eratu zenetik, 2. ERAKUNDE hau baitzen bestearen bazkide bakarra eta administratzailea. Eta toki hori Bizkaiko 1. UDALERRIKO TOKIA da, eraikin jakin bat zehaztu beharrik gabe.

10. Aurreko ondorio hori dela eta, ez da behar Ekonomia Ituneko 43.Lau.b) artikulua ezarritako laguntzen irizpidea, higiezinaren baliorik handieneko tokiarena.

Horregatik, Arbitraje Batzordeak

## **ERABAKI DU**

1. ERAKUNDEA erakundearen (IFZ (LETRA) ZZZZZZZZ) zerga-egoitza eratu zenetik Bizkaiko 1. UDALERRIAN dagoela aitortzea.